

# Arrasate

P R E S S

2001.eko  
abuztuaren 8a  
544. zenb.



**Orkatz eskaut taldeak  
amaitu du bere bidea**

# Osasun Gida

## AKUPUNTURA

- INTEGU (Masajea, Osteopatia) Iturriotz kalea, 10-1 ..... ☎ 943 77 13 34

## DERMATOLOGIA

- CONCEPCION TAMAYO Dk. Maalako Errabala, 23-2.A ..... ☎ 943 77 05 57

## ERREUMATOLOGIA

- GOROSARRI - TROJAOLA Dreak Zaldibar, 1-1 ..... ☎ 943 77 00 40

## FISIOTERAPIA

- ANDONI ETA MARIA. BASTERRETxea Errehabilitazio Zentrua Olarte 43 Bis ..... ☎ 943 77 03 96

## GAIBERRITZEA-ERREHABILITAZIOA

- FRANCISCO JAVIER LOPEZ DE MUNAIN. (Medikua) Zaldibar, 4-1 ..... ☎ 943 77 14 72

## LOGOPEDIA

- ARRASATE LOGOPEDIA ZENTRUA Erdiko kale, 37 ..... ☎ 943 79 79 46
- PSIKOPÉDAGOGIA ZENTRUA Ignacio Zuloaga, 10 ..... ☎ 943 79 48 77

## MASAJEAK

- JOSE LUIS ABUIN (Quiromasajea, akupuntura, naturopatia) San Josepe, 10 Behea, D (Xordegian ere bai) ..... ☎ 943 77 01 33

## ODONTOLOGIA

- ADUR odontologia institutu medikua Iturriotz, 35 ..... ☎ 943 79 95 60
- ARRASATE HORTZ KLINIKA Iturriotz, 17-1 Ezk ..... ☎ 943 79 72 23
- ARREGI HORTZ KLINIKA zerkaosteta, 19 behea ..... ☎ 943 79 71 90
- GIPUZKOako odontologia espezialitateen zentrua. Iturriotz, 7 Bis ..... ☎ 943 79 73 88
- IRIARTE IRURETA, ANE MAITE Iturriotz, 7-1 ..... ☎ 943 79 69 45
- LOPEZ DE GOIKOETXEA (Goiz eta arratsaldez) Alfonso X. Jakintsua, 5 ..... ☎ 943 79 17 74
- LORENZO MARTIN, RAFAEL Zarugalde, 3-1-B ..... ☎ 943 77 12 63

## OPTIKA

- ARRASATE OPTIKA (Optika, Optometria eta kontaktologia) Kontzeziño, 6 ..... ☎ 943 79 25 98
- LARRAÑAGA OPTIKA (Optika eta optometria) Juan Carlos Guerra, 1 ..... ☎ 943 79 29 95

## ORTOPEDIA

- ORTO LAGUN ORTOPEDIA Kontzeziño, 2 ..... ☎ 943 79 89 34

## OSASUN-DIAGNOSTIKOAK

- UDALAITZ MEDIKU-ZENTRUA (Anlisi klinikoak, R-X) Ferrerías, 56-Behea ..... ☎ 943 79 44 22

## OSTEOPATIA

- NEREA BENGEOA (Bizkarreko minak eta lunbalgiak) Azoka kalea, 4 ..... (Mobila) ☎ 659 58 66 89

## PSIKOLOGIA

- ARRASATE LOGOPEDIA ZENTRUA Erdiko Kale, 37 ..... ☎ 943 79 79 46
- PSIKOPÉDAGOGIA ZENTRUA Ignacio Zuloaga, 10 ..... ☎ 943 79 48 77
- TXOMIN NUÑEZ Olarte, 10 ..... ☎ 943 79 88 16

## UROLOGIA

- LLUCH, ALBERTO (Centro Médico Udalaiz) Ferrerías, 56 ..... ☎ 943 79 44 22

## urteurrenak

### Ospitalea berritzeko baimenik ez

■ 68. zenb.  
(1990-06-15)

ELAk salatu egin zuen Osakidetzak eta Osasun sailburuak eskualde ospitalearekiko zuten asmoa. Eraikuntza desegokitzen jo eta zerbitzuak eskaintzeko egoitza berria eskatu zuen. Ospitaleko zuzendaritzak Osakidetza zaren asmoei bat egin zuen, eta ambulatarioko hirugarren solairuan obrak egiteko baimena eskatu zuen. Udalak, ordea, ez zion baimenik eman arrazoi urbanistikoengatik, eta proiektua oso-osorik eza gutzea ezinbesteko jo zuen.

### II. Arte Hamabostaldia

■ 68. zenb.  
(1990-06-15)

Udaleko Kultura batzordeak II. Arte Hamabostaldiko egitasmoa onartu zuen. Lehenengo urtean, herriko artistek bakarrik egin zuten lan, baina ondorengoan kanpotarrak ekartzeko proposamena onartu zen. Leloa Arrasate: *bere inguru natural eta urbanoa* izan zen eta deialdia Euskal Herriko nahiz Espainiako Estatuak zerbait artistari egin zien.

### Etxeak penagarri Erdiko Kalen

■ 68. zenb.  
(1990-06-15)



Udaltzaingoak salaketa jaso zuen, Erdiko Kalen balkoi zatiak kalera erori zirelako. Erdiko Kaleko 27, 29 eta 31. zenbakiko etxebizitzetako jabeek eta udal teknikoek batzarra egin zuten. Udalak etxea kontserbatu eta konpontzea proposatu zien, baina jabeek nahiago zuten eraikina bota eta berriak eraikitzea, nahiz eta han bizi zirenak iritzi berekoak ez izan.

## besteek esana



Ingurumen politika berri bat gauzatu behar dugu, lau puntutan oinarrituko dena. Bata, elkarrekintza da; gizarteak, sektore ekonomikoak eta administrazioak egituratu behar dute, bakoitzaren konpromisoa ere gauzatu behar da. Bigarrena, berrikuntza da; politika berriak behar dira. Nik uste dut baditugula ikerketako azpiegiturak eta lanak. Hirugarrena, ingurumenaren integrazioa da, ingurumena ekonomiarekin txertatu behar da, bien arteko integrazioa behar-beharrezkoa da. Eta laugarrena, ezartzea da. Hitz egitea, diskurtsoak ondo daude, baina ingurumen politikak abian jarri behar dira»

Esther Larrañaga  
JAURLARITZAKO INGURUMEN  
SAILBURUORDEA  
Euskaldunon Egunkaria  
(2001eko ekainaren 5a)

**ARCO**  
ARRASATE  
KOMUNIKABIDEAK

ARRASATE PRESS

**Argitaratzailea:** ARKO (Arrasate Komunikabideak) Otxalora kalea, 31 20.500 ARRASATE (Gipuzkoa)  
Tel.: 943 71 25 11. Faxa: 943 71 23 89  
E-mail: arrasatepress@euskalnet.net  
Arrasate Irratia: 943 71 17 31

**Laguntzaileak:** Arrasateko Udala. **Zuzendaria:** Iker Barandiaran. **Kazetariak:** Ubane Madera, Leire Kortabarria eta Xabier Urzelai. **Publikatzailea:** Arantzazu Lagunilla, Natalia Martinez eta Izaskun Bolinaga. (Tel.: 943 71 23 91/ 943 71 23 92). **Zuzentzaileak:** Sergio Azkarate. **Administrazioa:** Agurtzane Gainzarain, Ane Berasaber (Tel.: 943 71 23 90) **Diseinua:** Alex Azkarate. **Asteburuetako berriemakileria:** Lorea Agiriano. **Banaketa arduraduna:** Naitara Odriozola-AED. (Tel.: 943 77 12 28). © ARRASATE PRESS. **Tirada:** 6.500. **Lege-Gordailua:** 1124/88. **ISSN:** 0214-4654. Franko kontzertatua. **Inprimategia:** Gertu Koop. E. (Zubillaga. Oñati).

ARRASATE PRESSEK ez du bere gain hartzen aldizkarian adierazitako esanen eta iritzien erantzunkizunik.

ARRASATE PRESS paper birziklatuan egiten da.

## aurkibidea

- Lehen begiratua . . . . . 3
- Asteko hitzorduak . . . . . 4
- Herritarren berbak. . . . . 5
- Asteari errepasoa. . . . . 6
- Inkesta . . . . . 7
- Orain eta hemen. . . . . 8/10
- Txutxumutxuak . . . . . 11/13
- Asteko gaia . . . . . 14/15
- Kirolak jokoan. . . . . 16/19
- Beheko dendatik. . . . . 20
- Kulturaren txokoa . . . . . 22/23
- Uhinetan barrena . . . . . 25
- Foto zaharra . . . . . 26



## ZERBITZUAK

### Eritxeak

Arrasateko Eskualde-Ospit. 943 03 53 00  
Igoalatorria . . . . . 943 71 26 91  
Santa Agedako Ospitalea  
(gizonak) . . . . . 943 79 39 00  
(emakumeak) . . . . . 943 79 44 11  
Buru osasunerako zentroa 943 79 90 11

### Larrialdiak

SOS Deiak . . . . . 112  
Gurutze Gorria . . . . . 943 76 55 76  
DYA . . . . . 943 78 71 57

### Anbulatorioak

Guardiako medikua . . . . . 943 46 11 11  
Astelehenetik  
Barikura . . . . . 14:00etatik 08:30era  
Zapatuetan . . . . . 14:00etatik 08:30era  
asteburu eta  
jai egunetan . . . . . egun osoa  
Arrasate  
Astelehenetik  
Barikura . . . . . 08:00etatik 17:00etara  
Zapatuetan . . . . . 09:00etatik 14:00etara  
• Txanda hartzeko: medikuntza  
orokorra eta pediatria . . . . . 943 03 52 50  
• Espezialitateak . . . . . 943 03 53 11  
• Ikuskatzaileak . . . . . 943 03 52 52  
• Kanpoko kontsultak: . . . . . 943 03 53 11  
Aretxabaleta . . . . . 943 79 74 58  
Aramaio . . . . . 945 44 53 40

### Anbulantziak

Gipuzkoako ambulanziaz 943 45 87 44

### Ertzaintza

Arrasate . . . . . 943 79 71 99

### Suhiltzaileak

Udal taldea . . . . . 943 79 09 00  
Udal taldeko suhiltzaile burua 943 79 20 72  
Zubillagako Eskualde-Parkea . . . . . 088

### Matxurak

Urak (udal zerbitzua) . . . . . 943 79 09 00  
Argindarra (Iberduero) . . . . . 943 12 01 62  
Gasa . . . . . 900 40 05 23  
. . . . . 943 79 78 44  
. . . . . 943 79 76 78

### Garraioak

Taxiak . . . . . 943 79 12 22  
PESA . . . . . 902 10 12 10

### Hirugarren adinekoentzako zentroak

Iturbide Egoitza . . . . . 943 79 72 11  
Abaroa jubilatuen egoitza 943 79 81 57

### Monterron liburategia

Monterron . . . . . 943 77 01 05

## MEZAK

### San Joan parrokia

<b>Zapatua</b>	<b>Domeka</b>
19:00 (elebiduna)	09:00 (gaztelaniaz)
	11:00 meza nagusia (euskaraz)
	12:30 (elebiduna)

### San Frantzisko eliza

<b>Zapatua</b>	10:00 (gaztelaniaz)
19:00 (elebiduna)	11:00 meza nagusia (euskaraz)
<b>Domeka</b>	12:30 (gaztelaniaz)
09:00 (euskaraz)	19:00 (gaztelaniaz)

### Uribarri parrokia

<b>Zapatua</b>	<b>Domeka</b>
19:00 (elebiduna)	11:30 (euskaraz)
	12:30 (gaztelaniaz)

### San Andres eliza

<b>Zapatua</b>	<b>Domeka</b>
19:00 (elebiduna)	10:00 (elebiduna)
	11:00 (euskaraz)
	12:00 (gaztelaniaz)
	13:00 (gaztelaniaz)

### Santa Teresa eliza

<b>Zapatua</b>	<b>Domeka</b>
19:00 (elebiduna)	10:30 (gaztelaniaz)
	11:30 San Isidron (euskaraz)
	12:30 (gaztelaniaz)

### Santamañako eliza

<b>Jalegun bezpera eta zapatua</b>	<b>Domeka</b>
19:00 (gaztelaniaz)	12:00 (gaztelaniaz)

## zarauzko abesbatza

Goikobaluk antolatuta, Zarauzko abesbatzaren emanaldia izango da ekainaren 9an

San Frantziskon.

## elkarri

Ekainaren 8an, 19:00etatik aurrera, Elkarriko kideak Seber Altuben izango dira, Bake

Konferentziarako sinadurak biltzen.

## haur dantzarien eguna

Ekainaren 17an, haur dantzarien eguna ospatuko da. 300 bat ume etorriko dira. Etxean bazkaltzera hartzeko prest dauden fami-

liek dantza taldeen lokaletan, AEDn edo Hiren izango dituzte eskaera orriak.

## toti martinez de lezea

Toti Martinez de Lezea idazleak *El Señor de la Guerra* liburu berria aurkeztuko du ekai-

naren 14an Monterronen, 19:00etan.

## CIMen junior jaialdia

Ekainaren 9an CIMek ikasturte amaierako jaialdia egingo du herriko plazan. Arrasateko eta Debagoieneko neska-mutikoak jola-

sera, dantza egitera eta txokolatea hartzera gonbidatu dituzte. 17:00etatik aurrera izango da.

## txatxiliren udalekuak

Ekainaren 15ean bukatuko da Txatxilipurdiren udalekuetan parte hartu gura dutenendako izena emateko epea. Ez da onar-

tuko egun horren ostean egindako matrikularik.

## araba euskaraz

### GAU ETA EGUNEKO FARMAZIAK

#### Egubakoitza, 8

- Azkoaga, Ferrerías

#### Zapatua, 9

- Azkoaga, Iturriotz

#### Domeka, 10

- Corcuera, Aranbarri

#### Astelehena, 11

- Irizar, Erguin

#### Martitzena, 12

- Amezuza, Santa Marina

#### Eguaztena, 13

- Zabala, Zarugalde


#### Eguena, 14

- Ruiz, Magdalena

Ekainaren 17an Argantzunen egingo da Araba Euskaraz, eta haraino joateko autobusak antolatu dituzte. Garibaitik irtengo dira, 09:00etan. Txartelak AEDn eros ditzakezue, 1.200 pezetan.

## 50eko kintoak

50eko kintoek, 1929an jaiotakoek, ekainaren 16an izango dute euren ospakizuna. 12:30ean meza San Frantziskon, gero txikiteoa eta 14:30ean bazkaria izango dute, batzokian. Ekainaren 12a baino lehen eman beharko da izena: deitu Jose Oleari (943 19 11 15 edo 943 79 22 79) edo Jose Luis Aranzabali (943 79 13 51).



## Herritarren berbak

# Euskalerritxik Californiara

Amaia Martiartu / Diseinatzaile grafikoa

ANAAAAAAAAA!!!!!!!!!!!!!!!!!!!!!!!!!!!!

Ze moduz Frisco-tik?

Ni hemendik ondo, Geoff beti bezain guapo eta txikilina terremoto adiniñan, bi primabera.

Aii...komadre, lehengo egunian Yolikin berbetan zera esan zoztan, nahixago zuela mutikuak eukittia Macho World honetan problema barik ibiltzeko.

Egixa da, ta nik iñuuuuxente, neskati-lla gura nauela esan nutzan, ez dakit ze burruka feminista bultzatzeko. Mekaguen! Jaixoten da Anetxo eta belarrixetako zulo txerrixok egitten ez dutsatelako, ondio txorradak entzuten; ume karro zaharrekin ibilli bihar kaletik eta karo, nork egin dittu herrixak? eta norentzat? gizonak, gizonak eta gizonak baiña ez elbarrituak eez...

Espaloiak ez die esistiruten, car only zone; zebrabidean itxoitzen morena jarri zeinke zu eta umia eta otoi egin tinpanoa suntsituko dotsun motorra pasa ez dein; barrera arkitonikoak, e? ze da hori? Azkenian parke zoragarri batera heldu... natura... umia karro zaharretik atara eta plaussssta! txakur kakamokordo baten gaiñera. Honeik eta beste milla

erregalu niretako ama izatiarren.

Eta Anetxori? Ze oparo dio mundu zoragarri honek Anetxori?

Frontoira goaz haurrak deportia egitten ikustera, ezkerretara neskati-lla eritnikoan, eskumetara mutikoteak pilotan.

**“Nik, iñuxente, lagun bati neskati-lla bat gura nauela esan notsan, ez dakit ze burruka feminista bultzatzeko. Mekaguen!!”**

Uuuumm... ni ipiñikonaz jolasian anetxok diskriminaziño positiboa ikusi deitzen? Beeeg... hobeto emakume batzordekuei komentatzia eskolatan kaña sartu deizen, hezkidetzaz izeneko programa majo batei buruz be entzun dot eta.

Etxera goaz, telebisiñua ixotu eta gabaldian Gora anorexia!!!!, titiak gora, ipurdiak behera, lifting gaiñetik, liposukzioa azpittik, depilaketa bibotean, tintea kokotean aaaaaag!!!! eskerrak Betizu daukagula zapietan. Neskati-lla raperoak eta gaiñera "normalak", potoloak, betaurrekodunak, aparatua ahoan, eta izugarrizko martxarekin. Gora gora gora heiheihei! bera bera bera bera heiheihei! GORA BETIZU!!

Ana... to be continued.

Feminista naiz eta harro nago

## aste gazte

### ■ DIRULAGUNTZAK

• Leonardo da Vinci programa. Europako enpresatan praktikak egiteko aukera. Ikasketak bukatu berriak izanik, lan esperientziarik ez dutenendako. Epea: ekainak 15.

• Estatuko Soziologia Institutuak ikerketa soziologikoak egiteko dirulaguntzak. Epea: ekainak 30.

• Euskarazko kirol materiala sortzeko dirulaguntzak. Aurten goa surfa izango da, 50 fitza didaktikoz osatutako lana. Epea: uztailak 13.

### ■ LANA

• Nafarroako Foru Erkidegorako 20 suhiltzaile behar dira. Epea: ekainak 11.

• Berrizko Udalerako, mantentze lanetarako langilea, soroslea, euskara teknikaria, kontrol-langilea eta garbitzailea behar dira. Epea: ekainak 12.

• Urretxuko Udalak udaltzainak behar ditu. Epea: ekainak 13.

• Mondragon Unibertsitate-rako goi mailako ingeniari edo lizentziadunendako 20 postu. Epea: ekainak 13.

• Lezoko Udalak gizarte langilea eta liburutegiko arduraduna behar ditu. Epea: ekainak 14.

• Oretarako Udalerako dantza irakaslea behar da (klake eta euskal dantzetako espezialitatean). Epea: ekainak 15.

• Irungo Udalerako, informazio eta tramitazio agentea eta txistulari bandako zuzendaria. Epea: ekainak 21.

Argibideak:  
GAZTE ZERBITZUA  
943 77 00 65



## USTEAK USTE

### Protestaren zilegitasuna

**G**reban 43 egun igaro ondoren, Gipuzkoako garbitzaileak, Arrasatekoak barne, lanera bueltatu dira. Patronalak negoziazioak hasteko greba eteteko baldintza ezarri eta badirudi negoziatioek emaitzak izan dituztela: Aurten, soldata %5,15 igo eta 2002an aurtengo Kontsumo Prezioen Indizearen %125 igoko dute. 35 orduko lan-astea bost urtean eskuratu eta bajak 2002. urtetik aurrera %75 (lehenengoan) eta %70 (bigarrenean) izango dira. Ez dirudi, kanpotik ikusita, gutxi lortu dutenik, legez dagokiena bada ere, eta grebak emaitza ona izan duela pentsa daiteke. Hala ere, langileak kexu dira greba iraupenaren eraginarengatik. Hilabete eta erdi honetan ez dute pezeta bakarrik eskuratu eta hain sakrifizio handia izan arren, jende askok ez du euren borroka ondo ulertu. Bestalde, argi geratu da hain errekonozimendu txikia daukan langile arlo honek duen benetako garrantzia eta egun ere protestak zilegi izan daitezkeela hobekuntzak lortzeko.

Iker Barandiaran

## astea bi hitzetan

### ■ Gehienak onartuta

Hogeita bederatzi gai jorratu zituen udalbatzarrak joan den egueneko osoko bilkuran, eta bat izan ezik beste guztiak onartu zituen. Horien artean, Udal Haur Eskolaren kontratua urtebete luzatzea onartu zuen.

Horrez gain, lanpostu berriak sortzearen, enpresei laguntzeko programa arautzeko legedia ere onartu zuen udalbatzarrak. Izan ere, programa horren lehenengo aldia bukatu eta gero, araudiaren zerbait zati moldatu beharra sumatu eta beharrezko aldaketak egin ditu Enplegu eta Garapen Ekonomikoko batzordeak.

Eta, besteak beste, lastertasun handiko trenaren

kontra jarritako mozioa ere eztabaidagai izan zuen. Mozioa ez zen onartu, PSE-EEren, EAren eta EAJren kontrako botoengatik. Kontra bozkatzeko emandako arrazoiak dira batetik, Lastertasun Handiko Trenaren alde daudela, eta, bestetik, uste dutelako ingurumenaren arazoa nahiko aztertuta dagoela eta proiektuak legea betetzen duela.

### ■ Lantegi berria

Mondragon Ensemble enpresak Kataluniako Dimaq Torello enpresako kapitalaren erdia erosi du. Mondragon Ensemblek errobotikaren arloan egiten du lan, muntaia automatikoen sistemak diseinatuz eta

ekoiztuz. Fagor Sistemas taldearen barruan dago, eta orain arte hiru unitate izan ditu: Aretxabaletan lantegi nagusia eta beste bi Frantzia.

### ■ Istripua Zarugalden

Zapatu eguerdian auto batek eta moto batek elkar jo zuten Zarugalde kalean. Udal-tzaingoak emandako datuen arabera, Suzuki motako motoa kontrako noranzkora zihoan eta Renault 11 markako automobil batekin egin zuen talka. Kolpearen ondorioz, motoan zihoan L.V.S 21 urteko mondragotarak gazteak min hartu eta eskualdeko ospitalera eramane zuten, zerbait haustura eta kolperekina.

### ■ Zerbitzuak katalogoan

Euskara Batzordeak eskaintzen dituen zerbitzuak katalogoan batu ditu udalak. Kontua da 1990ean herriko 38 erakundek euskararen erabilera sustatzeko hitzarmena sinatu zutela, eta bide horretan lanean segitzeko asmoarekin atera dute katalogoa. Edozeinendako eskuragarri dago katalogoa udal-txean bertan. Hiru hitzarmen sinatu ditu Arrasateko Udalak 1990a ezker. Lehenengoa sinatu zutenetik hona 10 urte igaro dira; orduan, esan bezala, 38 erakundek esku hartu zuten, gaur egun, ostera, 122 erakunde daude euskararen erabilera sustatu nahian. 122 erakunde horietatik, 45ek dute normalizazio plana. Plan horren abiapuntua erakundearen hizkuntzaren egoeraren azterketa da, eta hizkuntzaren egoera horretatik abiatuta, erakundeak berak ezartzen ditu lan erritmoa eta noraino iritsi gura duen.



**UGARAN**  
jatetxea  
Garagartza auzoa  
Tel.: 943 79 76 58  
ARRASATE

**M**  
**MEMESA**  
Industria hornidurak  
Tel. 943 71 24 25

**ARRASATE**  
**HOTELA**  
  
Biteri, 1 Tel.: 943 79 14 16  
ARRASATE


# Zure ustez, zer falta da sanjuanetan?

*Hiru aste eskas falta die eta egitaraua ixte egindde daukie*



**Mikel Arrasate**  
(Ikaslie)

Kontzertuek, adibidez. Musika askotariko kontzertuek.



**Jose Antonio Muruamendiaraz**  
(Langillie)

Jende gutxi etorten da, jende gutxikin geraketan gare. Jende asko falta da.



**Arantza Mauleon**  
(Langillie)

Lantegixetan jaiegun gutxiago eman beharko leukie, jende gehixenak ihes egitten dau eta... lehengo jaixek izugarrixez zien, eta oin, urten eta ez dago ezer.



**Txaro Mauleon**  
(Langillie)

Herriko jaixek die eta uste dot kalien parte hartze haundixaguetan egon beharko litzakeela. Geruago eta parte hartze haundixaguetan egon, egitaraua eta hobia izengo da...



**Joxe Ijorra**  
(Jubilaue)

Horrenbeste gastu egin eta gero, jende guztixe kanpora jueten da; hamen lau katu bakarrik geraketan gare.



**Goizane Artze**  
(Ikaslie)

Kalien giro hobia jartzie, gaztiendako gauza gehixago, (kontzertuek...) eta jendie kontutan hartzie. Parte hartzie be falta da; jende asko hor ziher jueten da.



**Gorka Etxeberria**  
(Langillie)

Kontzertu gehixago edo, behintzet, eskaintza zabalaguetan.



**Amaia Nafarrate**  
(Ikaslie)

Jaixetan girue tabernetan egoten da, eta antolaketan dien gauzak askotan ez die kontutan hartzen. Parte hartzie be biharrezkue dala uste dot.

**ZUBIZARRETA  
LANTEGIAK**  
Gipuzkoa Etorbidea, 22  
ARRASATE  
Tel.: 943 79 15 65

**MADINA ZURAK**  
Aroztegia  
Olak, aglomeratuak,  
kontratxapatuak, tablexa, ateak,  
egurrezko leihoak, oin-inguruak,  
zangoak, aroztegiko osagarriak.  
Zarugalde, 38 • Tel.: 943 79 13 78

**Txitxinpe**  
Berezitasunak  
Kazuelatxoak  
Otarako hotz eta beroak  
Arrasate Pasealekua, 33  
ARRASATE Tel: 943 79 67 76

**beinke**

# Garbitzaileek lortu dute hitzarmena eta lanean dihardute


Gipuzkoako garbitzaileek bertan behera utzi zuten lanuztea astelehenean, eta martitzenean lanean hasi ziren. 43 egunez greban egon eta gero, lortu dute hitzarmena patronalarekin. Horretarako, lan-gatazkak konpontzeko PRECO izeneko erakundearen bitartekaritza izan zuten, eta erakunde horrek proposatu eta zehaztu du bi alde- en arteko lan hitzarmena. Hurrengo bi urteetan, hortaz, horrelaxe geratuko da hitzarmena: aurtun %5'15eko soldata igoera, eta 2002an aurtengo Kontsumo Prezioen Indizearen %125. Bestalde, 35 orduko

lan-astea bost urteko epean eskuratuko dute, urtero 27 ordu murriztuz eta atsedendieiei minuturik kendu barik. Eta bajak, aurtengoak orain bezala geratuko badira ere, 2002an lehenengo baja %75 ordainduko da eta bigarrena %70.

Gipuzkoan 35 orduko lan-astea ezarri duen lehenengo lan hitzarmena da garbitzaileena.

## PREZIO ALTUA

Enrique Marco Comisiones Obreras sindikatuko ordezkariak adierazitakoaren arabera, "hitzarmen ona da, baina ordaindutakoa garestiegia izan



da... 43 egun egin ditugu greban, eta hori ez du edozeinek egiten... Edozelan ere, nabarmentzekoa da lortutakoarekin

seguruenik enpresa pribatuaren lehenengoak izango gara 2005. urtera 35 orduko jardunarekin heltzen".

# Taxi-bus zerbitzua moldatu egingo du udalak

Gesalibar auzora joateko eskaintzen duen taxi-bus zerbitzua moldatu egingo duela erabaki du oraingo asteko Gobernu batzordeak. Dirudienez, uste zutena baino etekin txikiagoa ateratzen diote zerbitzua eskaintzen duten sei taxilariak, eta orain dela gutxi udalari jakinarazi zioten bertan behera utzi behar zutela zerbitzua. Hori ikusita, udalak beste deialdi bat egin zien interesatuta zeuden taxilari guz-

tiei, haien proposamenak jasotzeko, eta, guztira, hiru taxilariak aurkeztu dituzte eskaintzak.

## BAKARRA

Horietatik, eskaintzarik merkeena onartu du udalak, hamabi mila pezetakoa, hain zuzen ere; hortaz, aurrerantzean taxilari bakarra arduratuko da Gesalibarrera jendea eraman eta ekartzeaz.

Bidaia bakoitzak 125 pezeta

balio du. Eta, oraingoz, une honetan duen automobilarekin egingo du joan-etorria, baina aurrera begira, handiagoa erosiko du, auto monobolumen bat, jende gehiago ekarri eta eraman ahal izateko.

Batez beste, egunean 30-35 lagunek egiten dute joan-etorria Gesalibar aldera: auzotarez gain, San Juan de Dios eta Aita Menni ospitaletara joaten direnek ere erabiltzen dute.


# Jaien egitaraua inprentan

Azken egunotan ukituak eman eta gero, udaleko Kultura batzordeak bidali du inprentara aurtengo San Juan jaien egitaraua. Datorren egubakoitzerako guztiak banatuta izatea espero du: 8.500 ale. Bi hizkuntzatan dago idatzita eta helburua praktikoa izatea da; hortaz, ez da izango liburuxka bat, baizik eta erraz tolestu eta poltsikoan gorde ahal izateko esku-papera. Eta, udalak eta herriko koadrilek jaietarako prestatu duten guztia- ren berri emango digu.



**Bonaventure • Diesel  
Pepe • Levis**

Otalora, z/g Behea ARRASATE  
Tel.: 943 79 11 72



**Gambrinus  
garagardotegia**

- Menua: bazkariak eta afariak
- Karta
- Errazioak

Otalora Lizentziatua, 40-42  
Tel.: 943 79 53 32



**Pando  
Errotuloak**

Gipuzkoa etorbidea 6  
(Legarre Pabiloia)  
Tel.-Fax: 943 79 79 70

Argidun kartelak
Ibilgailuak
Stand-ak
Itsasgarriak
Binloa
Señalizazioak
Lonak
Erliebedun hizkiak



OSPAKIZUN POLITA

## AHTrik ez-STOP TAV



Lastertasun Handiko Trenarengatik protesta izango da datorren astelehen goizean 11.00etatik 12.00etara. Bilkura eta prentsaurrea egingo dute Seberren, EB, EH, Elorrioko Independienteak eta Zutik alderdiek. Arratsaldean, Eroski parean 19:30erako egin dute deialdia. Trenaren eraginak salatu gura ditu AHT gelditu elkarlana plataformak. Esaterako, Udalatx zulatuz egin


behar diren tunel ugariak; tunel horiek barruko urak kaltetuko dituzte eta, gainera, tunelak egiteko kendu behar den lurra botatzeko ere hondakindegia eraiki beharko dituzte. Horrez gain, ekainaren 16an, Donostian egingo den manifestazioan esku hartzeko dei ere egin du AHT gelditu elkarlana taldeak. Arratsaldeko 18:00etan Anoetako estadiotik abiatuko da protesta ekitaldia.

## Gizarte taldeendako laguntzak

Herriko gizarte elkarteek euren lanarekin jarraitzeko dirulaguntza jasoko dute udaletik. Halaxe erabaki du oraingo asteko Gobernu batzordeak. Guztira 17 milioi pezeta pasatxo banatuko ditu, herriko 20 talderen artean.

Hortik, diru gehiena Komite Internazionalistek jasoko dute: 4.200.000 pezeta. 3.900.000 errefuxiatu sahararrak bizi diren basamortuan garraio azpiegituraren aldeko proiektuan erabiliko dute, bi zisterna-kamioi erosteko. Harreman taldea dator gero; talde horrek

2.700.000 pezeta jasoko ditu eta hortik, 2.400.000 pezeta Kolonbiako San Clemente proiekturako izango da, etxalde integralaren jarraitpenerako hain justu. Serro San Viator dator hirugarren lekuan. Guztira, 2.450.000 pezeta jasoko ditu eta ia diru gehiena Peruko Santa Fe zentroan bigarren solairua egiteko erabiliko du. Eta bestelako taldeek jasoko duten laguntzarekin Txile, El Salvador, Senegal, Mexiko, Nikaragua eta Bolivian egiten ari diren zenbait proiektu garatuko dituzte.



## AG AMAGARA

*Uda heldu da!  
Oraindik garaiz zabilta.  
Criosystem, berritasuna gorputz  
eta aurpegi tratamenduetan.*

- Depilazio elektrikoa
- Depilazioa argizari hotz eta beroaz
- Hidromasajea
- Solariuma ...

### ESTETIKA MEDIKUAREN KONTSULTA

Arruabarrena doktorea Kolegiatu zkia.: 6073

### KIROMASAJISTA

Martin Peña Kolegiatu zkia.: 960525

Erdiko kale, 54 • ARRASATE • Tel.: 943 79 09 09

# Egitamu Orokorra eztabaidatuko dute datorren astean

Datorren astelehenean, hilak 18, Egitamu Orokorra aurkeztuko diote udalbatzarrari. Horretarako osoko bilkura berezia deitu dute.

Egitamuaren helburu orokorra hirigintzaren ikuspuntutik udalerriaren ordenazioa zehaztea da. Hau da, herria antolatzeko irizpideak finkatzen ditu Egitamu Orokorrak: hala nola hirigunean dauden hutsuneak betetzen joatea, lurzoru berria sailkatzea, bereziki jarduera ekonomikoetarako, babestutako etxebizitzak erakitzea, etxebizitza kopurua gehitzea, parke teknologikoak sortzea, ingurumena zaindu eta babestea, arte, kultura, arkeologia eta natura ondarea babestea, bide sarea hobetzea



Etxebizitza gehiago egitea da Egitamu Orokorren helburuetariko bat.

eta motorgabekoen bide sarea ezartzea.

## ESKU-ORRIA

Behin zinegotziek egitamua eztabaidatu eta onartu ondoren, herritarrei eskuorri bana

iritsiko zaie etxera. Gainera, irailean Egitamu Orokorren gaineko erakusketa ere antolatuko dute Monterronen. Eta, jakina, herritar guztiei egingo diete Monterronera joan eta erakusketa ikusteko gonbita.

## Euroa gertuago

Oraingo astean, lau egunez, inguruko erakunde publikoetako langileek Euroaren gaineko ikastaro baten esku hartu dute. Hortxe izan dira, besteak beste, udaletxeko langileak. EUDELeK antolatuta, langileei Euroaren gaineko informazioa ematea zen helburua. Bi zatiko ikastaroa eman dute: lehenengoan informazio orokorra jaso dute eta bigarren zatia teknikoagoa izan da.

## Hezkuntza propioaren alde



Euskal hezkuntza sistema nazionala hizpide izan zuten eguaztenean Monterronen. PPK eta PSOEek ezarri gura duten hezkuntzaren aurrean, Euskal

Herriko hezkuntza sistema aldarrikatzea eta defendatzea izan zen helburua. Hizlaria Fernandez Maure Elgoibarko Institutuko irakaslea izan zen.

## Eskailera mekanikoak Erguinen

Erguin auzoa berriro urbanizatzeko aurreproiektua aurkeztu dio LKS enpresak udaleko Hirigintza batzordeari. Besteak beste, gero proiektua egiteko erabiliko dituen irizpideak zehaztu ditu. Eta, horien artean, esaterako, Urbarri etorbidea eta Elizalde kalearen artean eskailera mekanikoak ipintzea proposatu dute LKSko ingeniariak.

Horrez gain, Erguin eta Elizalde kaleen artean pasabidea ipintzea ere egokia dela uste dute eta Erguin kaleari dagokionez, orain dituen segurtasun arazoak konpontzea ere aurrez ikusi dute.

## APARKALEKUAK

Bestalde, Anboto kaleko 10, 14 eta 18. zenbakietako etxebizitzetan igogailua ipintzeko, LKSk uste du egokiena dela Anboto kaletik bertatik ipintzea. Auzorako aparkalekuak egitea ere badute aurrez ikusita, eta Anboto kalea aukeratu dute horretarako.

Eta, Jauregibarria izeneko kalean zuhaiztia ipintzeko proposamena ere egin du.

Edozelan ere, horiek guztiak aurreproiektuan proposatutako ekimenak dira. Orain, behar bezala aztertu eta posible diren edo ez ikusi behar dute. Hiru hilabete ditu LKSk horretarako, proiektua egiteko, alegia.

**BASATI TABERNA**  
PINTXUAK, BOKATAK ETA TRAGUAK  
TLF. 943 711767

**TTUKUN**  
Fotokopiak  
Liburu josteak  
Fotokopiak koloretan  
Planoen kopia  
Offset-a  
Ferrerias, 23 • ARRASATE  
Tel.: 943 79 46 62

**S. CARRASCAL S.L.**  
**Guk egindakoak:**  
• Sukalde altzariak  
• Armairu enpotratuak  
• Trastelekurako armairuak  
**Fabrikari erakusketa**  
Gipuzkoa etorbidea, 6 -1.a  
Tel/Faxa: 943 79 01 82

## OSPAKIZUN POLITA

50 lagun inguru elkartu ziren domekan Uarkapen, herriko Gutxi-tuen Egunean. Omenduez gainera, horien senitartekoak, SUDCe-koak, Txatxilipurdi, trikitilariak eta udal ordezkariak izan ziren. Gustura ibili ziren elkarrekin berriketan, eta gero, dantzan ere gogoz egin zuten.



## KORTEZUBITIK BILBORA

Umezaintzako 4, 5 eta 6 urteko umeak Kortezubira joan ziren maiatzaren 23an, Urdaibaiko fauna eta flora ikus-tera. Argazki honetan txintxo-txintxo agertzen dira, Basondo baserrira sartzeko prest. Bazkalostean, Bilbo-ko Txiki-Park jolaslekuan izan ziren.



*Zure etxeko  
txokoak janzten*

*Zeramika erakusketa eta salmenta*

Uribarri etorbidea, 22 • ARRASATE Tel.: 943 77 11 63

# EMAKUMEON TXOKOA

## Ezagutu Bilbo hango emakumeen historiaren eskutik

- **Bidal kulturala:** ekainak 30.
  - Bilboko emakumeen historia ezagutu, Alde Zaharra bisitatuz.
  - Guggenheimera bisita.
- **Prezioa:** 1.000 pezeta langileak. 600 pezeta langabetuak, jubilatua eta laguntza ekonomikoa jasotzen dutenak.
- **Bazkaria:** Bakoitzak berea eramango du.
- **Izena emateko:** Arrasateko Emakume Saila  
Tel.: 943 79 41 39

## Komiki ez sexisten IV. Lehiaketa

Gizarte ez sexista, komiki ez sexistak

- Gaia librea da
- Nahi duen orok parte hartu ahal izango du
- Euskaraz zein gaztelerez
- Partehartzailak banaka edo binaka (gidoigilea eta marrazkilaria) aurkez daitezke

**Lanak aurkezteko epea:** uztailaren 20a, arratsaldeko 14:00etan.

## “Gazteen ekimenak” XII. Argazki Lehiaketa

Parte hartzaileak:

- Debagoieneko 13-17 urte bitarteko gazteak
- 18-35 urte bitarteko edozein

**Emakume Saliaren sarri berezia (beste batzuen artean):** emakumezkoen ikuspuntua, errealitatea, mundua hobekien isladatzen duen argazkia: 500.000 pezeta.

**Lanak aurkezteko epea:** urriaren 11a.



## PASA DA IKASTURTEA, TORI SARIA!

Ikasturtea bukatu dela ospatzeko, bi eta hamabi urte arteko 150 ikasle elkartu ziren Erguin herri eskolan; eta, begi-bistan den moduan, ederki asko ibili ziren bateren batzuk zezen gainean bueltan. Jai horren bidez, umeak saritzen dituzte, ikasturtean egindako ahaleginarengatik.



## ZENBAT ILEHORI!

Lasarteko Landaberri ikastetxekoak dituzue ikasle mordoxka hau. Bigarren Hezkuntzako 2. mailakoak dira, eta Arrasate Press ikustera etorri zitzaizkigun joan den eguaztenean. Ikus dezakezuen moduan, ilehori asko dago, horixe delako euren futbol taldeko ile kolore ofiziala.



ARRASATEKO UDALA

Emakume Saila ■



## ERREPUBLIKAKOAK ETA GERRAREN GARAIKOAK

Ezkerrean 1931n jaiotakoak dituzue, hau da, Errepublika garaikoak; eskuman, berriz, 1936koak, hots, gerra denborakoak. Bi taldeek meza izan zuten San Frantziskon, eta lehenengoetako kinto batek, 1931ko Pedro Salaberrik, esan zuen meza. Bazkaldu, nork bere aldetik egin zuen: 1931koek Aldapa jatetxean, eta 1936koek Leze Txiki elkartean.

## EGUZKIAREN BILA JOAN...

... eta aurkitu ere, aurkitu zuten gure Txatxiartistek! Horretarako, baina, hamaika komeria egin behar izan zituzten lehenengo. Horiek guztiak aita-amen, lagunena eta beste ikusle askoren aurrean pasa zituzten. Merezki zuen, ordea, sari ederra izan zutelako azkenean!



# LASAGABASTER

Zerkaosteta, 1 eta 2 • ARRASATE • Tel.: 943 79 27 27 / 943 79 13 55

# Eskautak 30. urtemugarr

Ezin izan dute aurrera egin. 30. urteurrena ospatzeko urtebete besterik falta ez zenean, Orkatz Skaut Taldea desagertu egin da. Taldekide eta taldekide ohiek nahigabe handiz onartu behar izan dute Orkatzen banaketa. Saiatu, saiatu dira, baina ezin izan dute taldea biziberritzeko askorik egin. Izan ere, sasoi batean -batik bat, 70eko eta 80ko hamarkadetan- 300 ume eta gaztetxo inguru elkartu eta dinamizatu zituen talde batendako derrepentean hamarreko gutxi batzuekin moldatzea ez da batere erraza. Hala esan digu, atsekabez, Xabier Azulak, Orkatzen ume eta monitore izandako batek: "Urte onetan, ikasturte bakoitzerako 60 ume biltzeko gai izan zen Orkatz. Orduan, taldetan banatu behar izaten genituen. Azken urteotan, gogo berarekin genbiltzan; baina, azkenean, 12 urteko 10 gaztetxo agertzen zaizkizu... eta ez dago ezer ere egiterik".

**S**ortu zenetik, 1972an, orain gutxi arte, Arrasateko eskaut taldea ume gehien aisialdirako lehenengo aukera zen, eta taldeko partaide izan diren arrasatear guztiek oso ondo gogoratuko dituzte, ziur, elkarrekin bizi izandako makina bat une eta esperientzia. Izan ere, eskaut taldeak aisialdirako aukera gehienak esploratzen zituen: jolasak zirela, irteerak zirela, kanpaldiak edo kanpoan ego-

naldi laburrak zirela... Herriko kulturaren ere sakon murgilduta zegoen eskaut taldea, eta murgiltze horretara bultzatzen zituen hasiberriak.

## JATORRIA


Eskautek, 80ko hamarkadatik hona, aisialdirako talde gisara funtzionatzen zuten, baina bazituzten desberdintasunak ere. Esaterako, esan barik doa taldekide guztiek gogoz eta borondatez zihardutela taldean; monitoreek ez zuten euren

lanagatik kobratzen, eta bidaia edo irtenaldietarako diru beharrrak guztien artean asetzen zituzten. Desberdintasun horiek taldearen jatorrian zuten azalpena.

Eskaut mugimendua Baden Powell britainiarrek sortu zuen XIX. mendean. Gizarteak gizonari ematen ez zion heldutasuna mugimendu horrek ematea zuen helburu. Hiru printzipio zituen: Jainkoa, aberria eta aisialdia. Taldearen barruan, hierarkia, erri-tual eta sinbologia batzuk gordetzen ziren, hala nola, agurra, sartzera-koan kide berriak egin beharra zuen promesa edo juramentua, eskautak bereizteko koloreak eta uniformeak...

## SAN VIATOR

Egin dezagun jauzi 1972ko Arrasatera. Urte hartan, Jorge Nestares viatoristak lortu zuen eskautaren inguruan San Viatorreko hamazazpi mutiko eta La Mercedeko beste horrenbeste neskatila elkartzea. Hori izan zen San Viator Skaut Taldearen sorrera. Talde liturgikoa izan zen urte haietan, eta Powellek ezarritako hainbat ezaugarri errespetatu egin ziren, esaterako, juramentua. Baina horiek baino bereizgarriago bihurtu zen eskauten lepokoa: erdia gorri, beste erdia urdin, eta tolestura beltza; hau da, viatoristen



Inguruak ezagutzea izan da eskauten arlo bat

koloreak.

Garai hartan, eskolaz kanpoko denbora betetzeko ez zegoen aukera handirik, eta urtero berrogei kide berri inguru izatera iritsi ziren. Gogoz hasi ziren ekintzak antolatzen: adibidez, eskaut urtea bukatzeko, kanpamenduak egiten zituzten; izan ere, naturarekiko errespetua eta gozamina da eskauten oinarrietako bat.



«Multikirolarengatik eta egoitza oso urruti izateagatik desagertu da Orkatz Eskaut Taldea»

# an atarian gelditu dira



bat. Naturarekiko lotura handia izan dute.

## ARDURAK HARTZEA

Baina guztia ez zen ondo pasatzea, ez horixe. Eskauten beste bereizgarri bat da ardurari ematen dioten garrantzia. Adinen arabera sailkatzen ziren, zortzi urtetik 15era bitartean, eta 10-11 urterekin, patruiletan banatzen ziren eta erantzukizunak hartzen hasten ziren: diruzaina, idazkaria, gidaria, animatzailea... Eta monitore izateko, ezinbestekoa zen beste maila guztietatik pasatu izana.

Gorabeherak ere izan zituen eskaut taldeak. 1986an, bere onenean zegoenean, viatoristekiko lotura apurtu egin zen. Viatoristek eta monitore askok utzi egin zuten taldea, eta desagertzer zahoala zirudien. Azkenean aurrera egin

zuen, baina aurrerantzean Orkatz Skaut Talde moduan. Horrelaxe jarraitu dute oraintsu arte. Erljio kutsua alde batera utzi zuten, eta aisialdi talde bezala gorpuztu zen. Ohiko ekintzei eutsi zieten: txangoak, akanpada, eskulanak... Gainera, urtean egun bereziak zituzten: Gurasoen Eguna, Euskal Herriko beste eskaut talde batzuekin bilerak, Gorka Deunaren eguneko ospakizuna...

## TALDEARI ADIO

Zergatik desagertu den argi dute arduradunek: "Batik bat, multikirolarengatik. Umeak oso sartuta daude eskolaz kanpoko kiroletan, eta zapatuan partidua izaten dute. Bestalde, egoitzaren kontua ere izan

**«Nik neuk txikitandik bizi izandako zerbait da Orkatz, eta horren falta sumatuko du»**

da: azken egoitza Altamiran izan genuen, udalak emandako leku batean, eta hain urruti egoteak kalte egin digu", dio Xabi Azulak.

Eskaut taldeko arduradun izateko ume koskorretatik hasi beharra izaten dela kontuan hartzen badugu, erraz ulertuko dugu eskaut nagusiek zentzuzko inplikazioa zuten taldearekin. Eskauten gainbeheraren testigu izan dira, gainera. Hala diosku Mikel Orobengoa partaidea: "Azken

hiru urteotan monitore izan naiz, eta 15 ume talde bakanak nuen. Udako kanpamenduetan adin guztietako jende piloak elkartzen ginen lehen, eta orain hori ezinezkoa zen; azkenean, talde bakoitzak bere aldetik antolatu zituen kanpaldiak. Nik neuk txikitandik bizi izandako zerbait da Orkatz, eta horren falta sumatuko dut".

Leire Kortabarria



## Herri arteko txapelketari agur

Herri arteko txapelketaren barruan, Arrasatek 2-1 irabazi zion Donostiari itzulerako norgehiagokan, hortaz, donostiarren aurkako lehia 5-1 geratu da arrasatearren alde. Hala ere, Arrasatek amaitu du bere ibilbidea txapelketa horretan, aurretik geratu dira eta Bergara eta Azpeitia, eta bi horiek bakarrik izango dute aukera final-laurdenetan jokatzeko.

### KADETEEK EZIN

Donostiarek irabazi zuten partida bakarra izan zen (11-22). Aurreko koadroetan tanto ugari lortu zuten eta arrasatearrak ez ziren hain fin ibili atzealdean. Bestalde, aurrelari donostiarrak ondo erakutsi zuten tantoa amaitzen baze kiela, eta atzelaria, gainera, oso seguru ibili zen.

### JUBENILEK ERRAZ IRABAZI

Abasolok eta Uribarrenek zailtasun handi barik irabazi zuten partida. Abasolo lasai ibili zen aurreko koadroetan eta ez zuen eragozpen handirik izan tantoa amaitzeko. Sakez ere hainbat tanto egin zituen. Atzealdean, berriz, Uribarrenek argi erakutsi zuten, ezkertia izan arren, eskuinarekin jokatzeko ere badakiela eta menderatu egin zuten atzelari donostiarra. Partidaren hasieratik amaierara arrasatearrak nagusi izan ziren, bai jokoan baita markagailuan ere.

### NAGUSIEN PARTIDA LUZE ETA GOGORRA

Jardunaldiko partidarik gogorrena izan zen. Luze joan zen, ordubete inguru iraun zuten



eta. Errasti arrasatearrak pilotari abiada handia eman zion eta, horrela, tantoa dominatu zuten, gero bi paretak eginez tantoa amaitzeko. Donostiarrak aurrealdean tanto ugari egin zuten, baina arrasatearrek gogor egin eta partida irabazi zuten.

Bukatu dira federazioak antolatutako txapelketak: Gipuzkoako Liga, Udaberri saria eta Herri Arteko txapelketa. Aurrerantzean, txapelketa pribatuetan arituko dira: Oñatikoa, Usurbilgoa, Añorgakoa, Itziarkoa eta Amezketakoa izango dituzte jokoan.

## Jubenilen lehenengo taldeak ere bukatu du denboraldia

Donostiako Martutene taldearen kontra jokatu zuten pasaden astean Lehenengo Jubenilek, Ordizian. Partiduko gol bakarra azken segunduetan etorri zen donostiarren alde. Arrasateko taldeak menderatu zuten partidua goitik behera, baina, ez zuten gol aukerak aprobetxatzen jakin; aukerak eduki, eduki bait zituzten, dozena erdi bat bai behintzat. Datorren larunbatean ea gehiago asmatzen duten Real



Sociedad-en kontra jokatu duten norgehiagokan. Denboraldiari agur esateko, Mon-

dra-Real Sociedad partida jokatu dute Atxabalpen, lehenengo mailako Jubenilek.

## Txartel bateratua, abian

Arrasate, Aretxabaleta, Oñati eta Bergarako kirol zerbitzuetarako txartel bateratuaren egitasmoa abian da berriro, aurreko astean frogaldia bertan behera gelditu eta gero. Arrasateko igerilekua itxi egin behar izan zutela-eta, joan den astean, egunero 60 arrasatear baino gehiago joan ziren Aretxabaletako kiroldegira. Horren aurrean, hango Udalak erabaki zuten txartel bateratuaren frogan bertan behera uztea.



**ERRASTI KRISTALDEGIA**

**Plastiko eta burdinazko hodiak  
beirina eta kristalak  
osagaiak**

Olarte kalea, 47 behea Tel.: 943 79 22 55 / 943 79 14 25

**GORKA**  
ILEAPAINDEGIA

Ferrerias, 35 ARRASATE Tel.: 943 77 13 78

**ORDUTEGIA:**  
Astelehenetan itxita.  
Asteartetik ostiralera:  
09:30 - 20:00  
Larunbatetan:  
08:00 - 14:00

**SOLARIUMA**

10 saio = 6.000 pezeta



# Gil eta Mentxaka beteranoetan bigarren

IX. Eskoriatza-Arrasate krosa jokatu zen domekan. Eguraldi ona lagun, 60 lasterkaririk bi herri horien arteko zortzi kilometro eta 400 metroko ibilbidea bete zuten. Hamabietan puntuan hasi zen lasterketa. Lehenengo kilometroetan tropeltxo osatu zen aurrealdean eta pixkanaka hirukote bat jarri zen lasterketaren buru. Aretxabaletan bi lasterkariren arteko lehia bizi izan zen, Aitor Uribesalgoren eta Richar Fernandez oñatiarraren artean hain justu, eta biak batera iritsi ziren Arrasateko kaleetara. Helmu garako 300 metro falta zirela, Otorala kalean Aitor Uribesalgok aurre hartu zion Richar Fernandezi. Bidezabal taldeko lasterkariak erakutsi zuen azken metroetan oso azkarra dela eta hura sartu zen aurrena Portaloian jarritako helmugan.



Aitor Uribesalgotik durangarra nagusitu zen krossean.

Durangarrak 24 minutu eta 47 segundo besterik ez zuen behar izan lasterketa irabazteko. Richar Fernandez sailkatu zen bigarren, irabazlearengandik lau segundora. Oñatiarra, Arrasate-Oñati lasterketan moduan, bigarren izatearekin konformatu behar izan zen.

Emakumezkoan mailan, Nieves Zarza durangarra izan zen irabazlea, haren denbora 29 minutu eta 47 segundo izan zela. Emakumezko beteranoetan, Amaia Mazorriaga izan zen irabazlea; 34 minutu eta 9 segundoa bete zuen ibilbidea abadiñarrak. Bigarren Maria



Jose Gil izan zen, 61 urteko arrasatearrak 37 minutu behar izan zituen.

Gizonezko beteranoetan ere arrasatear bat izan zen bigarrena, Javier Mentxaka hain zuten ere, Cesar Pérez donostiarraren atzetik; hirugarren Jose Antonio Otxoa sartu zen.

## ARRASATEKO KOMIKI EZ SEXISTAREN IV. LEHIAKETA

Arrasateko Udaleko Emakume Sailak, Gazteria eta Euskara Sailen laguntzarekin, Arrasateko Komiki Ez Sexisten IV. Lehiaketa antolatu du. Gaia librea izango da.

Nahi duen orok parte hartu ahal izango du. Partehartzaileak banaka edo binaka - gidoigilea eta marrazkilaria - aurkez daitezke.

Lanak aurkezteko **epa 2001ko uztailaren 20ean**, arratsaldeko ordu bietan, Emakume Sailaren bulegoan, Arrasateko Udaletxean.

Emaitzak irailaren 28a baino lehen iragarriko dira.

### Sariak:

- Lehen saria: 100.000 pezeta.
  - Emakume eta gizonen arteko aukera eta tratu berdintasuna hobeto lantzen duenaren saria: 70.000 pezeta.
  - Emakume egilearentzat: 70.000 pezeta.
  - Gazte saria: 35.000 pezeta.
  - Euskara saria: 35.000 pezeta (metakorra).
- Sari guztiei PFEZri dagokion atxekipena aplikatuko zaie.

Komiki batzuk aukeratu eta aldizkari batean argitaratuko dira.

Saritutako lanak Emakume Sailaren eskuetan geldituko dira eta lanak ustiatzeko eskubideak (kopiak egin, banatu eta saltzekoak) Arrasateko Udalarenak izango dira. Saritu gabeko lanak beren egileen eskuetan geldituko dira; hala ere, Arrasateko Udalak lanak erakutsi eta publikatzeko eskubidea izango du.



ARRASATEKO UDALA

Emakume Sails ■

# koadrila arteko pilota txapelketa

## Bikoteak

A Taldea			B Taldea		
	jok.	punt.		jok.	punt.
1. IÑIGO-ISTURIZ	6	11	1. GAIZKA-UGUTZ	3	6
2. TORIBIO-PI	4	8	2. GAIZKA-BOLUDO	3	5
3. EIMON-ZARRE	4	7	3. BOLING. II-BEX	3	4
4. MUXI-ULLI	4	7	4. PIRU-MUTXIN	1	2
5. JOSEBA-JOSU	5	7	5. MARKEL-UNAI	2	2
6. BOLING. I-KARNI	5	5	6. OTUTO-ARANBU.	1	1
7. HARITZ-URKO	4	4			
8. SAIZAR-PON	1	1			

C Taldea			D Taldea		
	jok.	punt.		jok.	punt.
1. AITOR-OIER	4	8	1. GORKA-HAYMAR	5	10
2. ASIER-URTZI	4	7	2. ASIER-GORKA	5	9
3. TXELO-XABI	3	4	3. CARLOS-UNAI	6	8
4. BERMU-BIU	3	4	4. ARGIDER-IBAN	6	8
5. BULL-PIRULO	2	2	5. GARI-IGORTZ	4	6
6. LUR-LAGAR	1	1	6. KASKO-IRA.	4	6
			7. CARBONI-TITINO	4	5
			8. TXETXI-SKRITX	2	2

## Emaizak

### A TALDEA

MUXI-ULLI 22  
HARITZ-URKO 15

IÑIGO-ISTURIZ 22  
JOSEBA-JOSU 10

EIMON-ZARRE 22  
BOLINGAZO I-KARNI 3

TORIBIO-PI 22  
IÑIGO-ISTURIZ 18

EIMON-ZARRE 18  
MUXI-ULLI 22

SAIZAR-PON 0  
JOSEBA-JOSU 22

IÑIGO-ISTURIZ 22  
MUXI-ULLI 18

JOSEBA-JOSU 22  
BOLINGAZO I-KARNI 6

### B TALDEA

GAIZKA-UGUTZ 22  
MARKEL-UNAI 4

GAIZKA-BOLUDO 22  
BOLINGAZO II-BEX 12

### D TALDEA

BERMU-BIU 2  
ASIER-URTZI 22

LUR-LAGAR 0  
AITOR-OIER 22

### E TALDEA

GORKA-HAYMAR 22  
ARGIDER-IBAN 18

ASIER-GORKA 22  
CARLOS-UNAI 15

GORKA-HAYMAR 22  
CARLOS-UNAI 9

KASKO-IRAULTZA 22  
ARGIDER-IBAN 8

## Hurrengo partiduak:

### A TALDEA

TORIBIO-PI	vs	MUXI-ULLI	Ekainak 9	15:00 Uarkape
EIMON-ZARRE	vs	IÑIGO-ISTURIZ	Ekainak 9	15:30 Uarkape
SAIZAR-PON	vs	BOLINGAZO I-KARNI	Ekainak 9	16:00 Uarkape
HARITZ-URKO	vs	JOSEBA-JOSU	Ekainak 9	16:30 Uarkape
TORIBIO-PI	vs	EIMON-ZARRE	Ekainak 10	10:00 Uarkape
IÑIGO-ISTURIZ	vs	MUXI-ULLI	Ekainak 10	10:30 Uarkape
SAIZAR-PON	vs	HARITZ-URKO	Ekainak 10	11:00 Uarkape
JOSEBA-JOSU	vs	BOLINGAZO I-KARNI	Ekainak 10	11:30 Uarkape

### B TALDEA

OTUTO-ARANBURU	vs	GAIZKA-BOLUDO	Ekainak 9	10:00 Uarkape
PIRU-MUTXIN	vs	MARKEL-UNAI	Ekainak 9	10:30 Uarkape
GAIZKA-UGUTZ	vs	BOLINGAZO II-BEX	Ekainak 9	11:00 Uarkape

### D TALDEA

BERMU-BIU	vs	TXELO-XABI	Ekainak 9	11:30 Uarkape
LUR-LAGAR	vs	ASIER-URTZI	Ekainak 9	12:00 Uarkape
AITOR-OIER	vs	BULL-PIRULO	Ekainak 9	12:30 Uarkape

### E TALDEA

TXETXI-SKRITX	vs	ARGIDER-IBAN	Ekainak 9	17:00 Uarkape
GORKA-HAYMAR	vs	CARBONI-TITINO	Ekainak 9	17:30 Uarkape
CARLOS-UNAI	vs	ASIER-GORKA	Ekainak 9	18:00 Uarkape
KASKO-IRAULTZA	vs	GARI-IGORTZ	Ekainak 9	18:30 Uarkape
TXETXI-SKRITX	vs	ASIER-GORKA	Ekainak 10	12:00 Uarkape
GORKA-HAYMAR	vs	ARGIDER-IBAN	Ekainak 10	12:30 Uarkape
CARLOS-UNAI	vs	GARI-IGORTZ	Ekainak 10	13:00 Uarkape
KASKO-IRAULTZA	vs	CARBONI-TITINO	Ekainak 10	13:30 Uarkape

# Garagardoa, errugbia eta jaia

Zazpinako errugbi txapelketa jokatu zen Arrasaten pasa den asteburuan. Hamar taldek esku hartu zuten, 200 errugbi jokalarik guztira, garagardoa eta errugbia uztartzen dituen Euskal Herri mailako txapelketa ospetsuenean.

Barikuan zabaldu zuten herriko plazan jarritako karpeta, eta afari ederra egin zuten hantxe errugbizaleek eta beste herritarrek.

Zapatuan, errugbia izan zen protagonista. Goizean, Gipuzkoako eta Nafarroako selekzioetako kadete eta gazte mailakoen partidak izan ziren Atxabalpen, eta arratsaldean, berriz, Nazioarteko Zazpinako Errugbi txapelke-



ta. Euskal Herri osoko taldeak izan ziren lehian, baita Santander, Logroño eta Frantziako taldeak ere. Norgehiago-

kak bukatuta parrandak jarraitu zuen. Herriko plazan sari banaketa egin zen eta gero musikaz girotutako jaia

egon zen. Aurtengoa hirugarrena izan da Arrasaten, eta urtetik urtera izena hartzen dabilen topaketa da.

## Emaizak

Txapime Dribling 7- Goma 3  
Iriztu 3- YK Azkena 2  
Rayo Aldeano 6- Irati STS 2  
IKP 5- Bikain Akademia 4



### ZIGORRAK:

Final-laurdenak oso gogorak izan dira, bai joko aldetik baita jokalarien jarrera aldetik ere. Partidu guztietan izan dira istiluak eta liskarrak, baina gogorrenak Rayo Aldeano eta Irati STS taldeen artekoak izan dira. Rayo Aldeano taldeko jokalaririk batek, Mikel Aias-tuik, Irati taldeko beste jokalaririk bati ukalondokoa eman zion. Aias-tuik ezin izango du partidu gehiago jokatu txapelketa bukatu artean, antolatzaileek hori erabaki dute eta.

Antolatzaileek dei egin die-


te azken partiduak jokatuko dituzten jokalariei, geratzen diren partiduetan urduritasunak alde batera utzi eta giro lasaigoan joka dezaten.

### ATZERRITARRAK FINALEAN:

Bihar, zapatua, finalerdiak jokatuko dira eta lehenengo partiduan bi talde atzerritar izango dira aurrez aurre, Rayo Aldeano talde aramaioarra eta IKP iurretarra; bietako batek finala jokatuko du.

Mondragoeko futbola krisian ote dago bada?

## Zaldibarko areto *futbola*



### Hurrengo partidak

#### Finalerdietako ordutegia:

**Zapatuan**

**11:50 IKP - Rayo Aldeano**

**13:00 Txapime Dribling - Iriztu**



## Aitor Astaburuaga Ttukun fotokopixa dendakue

Aitorrek oin dala 16 urte zabaldu euen dendie anaiakin batera, eta harrezkero hortxe dabil jo eta sue. Aurretik, denda hortan lagun batzuk euzen eta horrein bittartez, ba, karneten fotokopixak-eta egitten... Hasieran ez zauen lan haundirik, baiñe gaur egun eskolakin lan haundixagüe igerketan da, asko aldatu da.

**Esaidazu guzur bat.**

Uda ez jat gustetan.

**Amets bat.**

Lan egin barik bizitzie.

**Amesgaizto bat.**

Ez dot eukitten.

**Egin dozun azken biajie?**

Alikantera.

**Txartel horixe zeini?**

Batzutan neure buruari.

**Film bat?Liburu bat?Disko bat?**

Las norma de la casa de la sidra/La historia interminable/  
Benitoren danak.

**Gustora egitten dozu zeure lana?**

Oso gustura.

**Dendari ez baziña, zer izengo zitzake?**

Ideiarik be ez.

**Animalixe izetekotan, zer?**

Delfiña, uretan-eta...itsasue gustetan jat, orduen...

**Drogak legeztatuko zenittuzke?**

Bai.

**Eta prostituziñue?**

Baitta be.

**Tabernetako poteue ala diskotekak?**

Ja,ja,ja, poteue, eta betikue, gaiñera.

**Etxeko zapatillak ala zapatak?**

Zapatak, betik.

**Zer gustetan jatzu Arrasatetik?**

Lasaittasune.

**Alkate izango baziña, zer hobetuko zeunke?**

Hobetu? Ez dakit. Aparkalekuek...saiatu, ze ibilliko die oin be bai...

**Eta lehendakari izengo baziña?**

Hori pentsau be ez, ez dakit.

**Bizio bat?**

Uste dot ez daukatela bat be ez.

**Zer erizten dotsezu Arrasate Press Goienkari barrun sartziari?**

Nik itxiko neuke oin dauen moduen.

**Zer gehittuko zeunke Arrasate Pressen? Eta zer kenduke zeunke?**


Gehixena agerketan da, hamaika gai lanketan dauie. Ondo daue-la uste dot, hasieratik bukaerara dana beiketan dot.

**Gustoko mendi bat?**

Udalatx.

**Bizitzera hiri batera juetekotan, nora?**

Hamen gearauko nitzake, eta bestela hondartza daukon hiri batera.



"Pertsona danak die  
interesantiek, bakoitza  
berien, baiña pertsona  
danak"

**Eta ezagutu nahiko zeunkeena?**

Ez dot pentsau sekulan be ez. Ez dakit.

**Desleiala izetekotan, zeinekin?**

Momentuaren arabera, galderie zelan hartzen dan arabera.

**Telebista saio bat? irrati saio bat?**

Sorgiñen Laratza; El kiosko de la Rosi.

**Boligrafo marka bat.**

Paper Mate.

**Zertan gastauko zeunke dirue?**

Kanpora jueten, biajetan...ez dakit.

**Zenbat fotokopixa egunien?**

Ez dakit, kalkulau leike, baiñe sekulan ez dot egin.

**Sasoi hontan zer fotokopixatzen dozu gehixen, apuntiek ala txuletak?**

Txuletak.

**Jasaten ez dozun gauza bat?**

Gauzak aurpegira ez esatia sentiduten dien moduen.

Gauzak gordetie eta ez esatie gauzak aurpegira.

Ondare  
Fondoanitza

EUSKADIKO KUTXA

**HIL HONETAN, MILAKA BIDAI POLTSA OPARI**

Hil honetan, antelina beix eta berdeko Bidai Poltza (52 x 28 x 28) oparituko dizugu. Baina ibili bizkor, dagoeneko Euskadiko Kutxaren sukurtsal guztietan banatzen ari dira eta. Zatoz bukatu baino lehen. Ongizate Aurrezkiarekin dena daukazu: opari praktikoak, interes ona eta aurrezkientzako askatasuna.



**BIDAI POLTSA / 300.000 PEZETA SARTUZ GERO**

Promozio honek lehen 100.000 eragiketentzat balio du / Balioa izateko, gutxienez promozioan eskatzen den kopuruko sarrerak egin beharko dira eskudirutan edo beste entitate bateko txeke bidez / Opari bat pertsonako / Artikuluarekin gustura geratu ezean, Euskadiko Kutxak eragiketa desegiteko konpromisoa hartzen du.

901 333 444

[www.cajalaboral.es](http://www.cajalaboral.es)



**CAJA LABORAL**  
EUSKADIKO KUTXA

Zurekin  
elkarlanean

## Gutxituei musika irakasteko liburua egin du Jose Ramon Vitoriak

Jose Ramon Vitoria musika irakasleak zazpi urte daramatza gutxitu psikikoei irakasten. Jarduera horrek fruitu berria eman du: *Ostadarraren hotsaz* izeneko liburua. Oraintsu argitaratu du Hik Hasi Euskal Heziketarako Aldizkariak.

### KOLOREAK ERABILIZ

*Ostadarraren hotsaz* liburuan, Arrasate Musikaleko hezitzaile honek musika irakasteko Aschero metodoa erabili du, orain arte moduan. Kolore eta neurri desberdinetako zirkunferentziak erabiltzen dira musika notak identifikatzeko, solfeo tradizionalen ez bezala. Vitoriak metodo hori azaldu du liburuaren lehenengo zatian; gero, horretan oinarri-



tutako 81 musika-pieza jaso ditu. Guztiak ere euskal abesti herrikoiak dira, Jose Ramonek Aschero sistemara egokitu dituenak.

Jose Ramon Vitoriaren

esanetan, Aschero sistema logikoa, zuzena eta argia da, eta horregatik, urritasun psikikoren bat dutenendako orain arte itxita zegoen ate bat zabalitzen du.

## Argazkigintza, dantza, irrati eta arkeologia tailerrak, udarako



Aukera berria eskainiko du udan Gaztedia Sailak: Udako Gazte Ikastaroak izenpean, lau tailer ipiniko ditu aukeran. Guztiak ekain bukaeran edo uztailean hasiko dira, eta uztailean bertan bukatu. Argazkigintza oporrei begira irrati, arkeologia eta gaur egungo dantza tailerrak dira, 15 urte-tik aurrerakoendako.

### ESKAKIZUNARI ERANTZUN

Lehenengo aldiz antolatuko ditu udalak horrelako udako ikastaroak. "Uztaileko aisialdi eskaintza bakarra kirol ikastaroak izan dira, baina gazte-ek bestelako aukerak ere eskatzen dituzte, eta horri erantzun gura diogu", dio Gaztedia Sailko arduradun Blanka Jaure-

gik. Ikastaroek bi helburu dituzte: gazteei ondo pasatzeko aukera ematea eta baita zer edo zer ikastea ere.

### HISTORIAURREA

Hezkuntza kutsu horrekin abiaraziko dute, esaterako, arkeologia tailerra. Santa Barbaran egingo da, Irungo Arkeolan ikerketa zentroaren eskutik. Indusketetarako erabiltzen diren teknikak, gure Historiaurre aroa, estratigrafia, aroen sailkapena... ikertuko dira, betiere modu erakargarrian. Dena dela, ikastaroendako ez da aurrejakintzarik behar.

Izena ematea Gazte Bulegoan egin beharko da, edo 943 77 00 65 telefonora deituta. 5.000 bat pezeta kostako da matrikula.

## Gay mugimendua, iruditan

Ekainaren 28an, Gay eta Lesbianen Eskubideen Aldeko Nazioarteko Eguna ospatuko da. EHGAMek, Euskal Herriko Gay Askapenerako Mugimendua, beste talde batzuekin lankidetzan, 60 bat ekin-tza antolatu ditu ekain osorako, 28an Hego Euskal Herriko hiriburuetan egingo diren manifestazioak ekitaldi nagusi moduan.

Horien artean, Arrasaten erakusketa antolatu du, Olarte kaleko Jai Zale tabernan. Ekainaren 17a arte izango da ikusgai.

### KARTELAK, ALBISTEAK...

*Ametsak? Egin eta kitto!* da EHGAMek aurtengo errebindikazio kanpainarako aukeratu duen leloa. Euren ametsa da, manifestuan azaltzen duten moduan, diskriminazio, moda, bizi baldintza eta beldur pertsonal guztien gainetik, sentitzen eta gura duen moduan bizi den jende kopurua gero-ago eta handiagoa izatea. Erakusketan ikus daiteke zelakoa izan den borroka horren bila-kaera, 60ko hamarkada bukareratik hona. Kartelez, egunkarietako albistez, argazkiz... dago osatua erakusketa.

### BILAKAERA

Batzuetan modu umoretsuan, bestetan dramatikoki, irudi horien bidez homosexualitatearen gainean gizarteak izan duen jarreraren bilakaera jarrai daiteke. Errepresioa eta bazterkeria oso ondo islatuta gertatzen dira, baina baita gay eta lesbianek urteotan egin izan dituzten mobilizazioak eta izan dituzten lorpenak ere, gaur eguneko kezketara iritsi arte.

TOTI MARTINEZ DE LEZEA (IDAZLEA)

## «Idazleak ez luke besteen gustuetan pentsatu beharko, bera gustura geratzean baizik»

Toti Martinez de Lezea gasteiztarrak nobela historikoak idazten ditu. *La Calle de la Juderia*, *Las Torres de Sancho* eta *La Herbolera* kaleratu ditu, arrakasta handiz. Laugarrena ekainaren 14an aurkeztuko du Arrasaten.

— Aurrera dezakezu zure nobela berriaren, *El señor de la guerraren*, zer edo zer?

— XV. mendea dut gogoko, eta orduan izan ziren Bizkaian, Gipuzkoan eta Araban ganboarren eta oñaztarren arteko guduak. 10 urtean hiru lurralde horietan elkarrekin borrokan jo eta su ibili ondoren, Mondragoen bukatu zuten, eta goitik behera birrindu zuten. Hori kontatzeko gogoarekin nenbilen, izan ere, jendeak badaki Mondragoe erre zutela, baina ez zergatik, zelan izan zen...

— **Nondik datorkizu nobela historikoarekiko pasioa?**

— Aitarengandik datorkit historia-rekiko maitasuna; liburu asko zituen, eta txikitandik irakurri dut Euskal Herriko historia. Nobelari dagokionez... Alejandro Dumas-en *Hiru Mosketero*arekin hasi nintzen, eta horrekin segitu dut. Hortaz, nobela historikoa gustatzen zait. Zaletasun horren harira konturatu nintzen ez geneukala Euskal Herriko historian oinarritutako nobelarik. Horregatik hasi nintzen neu idazten.

— **Zelan prestatzen dituzu liburuak?**

— Ez dut historia ikerketarik egiten; ikerketak egon badaude, eta asko gainera. Nik egiten dudana da beste batzuek ikertu dutena irakurri. Gero, jendearekin berba egin, bertsio desberdinak ikusi, kokapen lekuetara joan... Nobelak idaztetik gustukoaren dudana da ikastera behar-



tzen nautela. Lehenengo, iturriak miatzen ditut, notak hartzen ditut... hariak eta ideia sortzen zaidan arte. Orduan idazten hasten naiz. Baina idazten ari naizen bitartean, gai berriak suertatzen zaizkit, orduan, berriro dokumentaziora jo beharra izaten dut.

— **Historia begiratzea ala istorioak asmatzea, zer gurago?**

— Biak. Ordenagailuaren aurrean eseri eta idazten hasten naizen ueña niretako bakarrik da. Beste aro historiko batzuen inguruan idaztea erraza egiten zait, bizi egiten ditudalako. Pertsonaiekin jolastea ere asko gozatzen dut. Nire ustez, norbera egon behar da gustura egiten duenarekin. Idazleak ez luke besteen gustuetan pentsatu beharko, bera gustura geratzean baizik. Idazten hasi aurretik irakurleengan pentsatu izan banu, bestelako liburuak egin izango nituzkeen.

— **Zure hiru liburuek arrakasta handia izan dute. Espero zenuen?**

— Ez, inondik inora ere. Irakurle amorratua izan naiz, eta horrexegatik liburuaren esparrua nigidik urruti samar ikusi izan dut; sekula ez zitzaidan bururatu egunen batean niri ere liburu bat argitaratuko zidatenik, are gutxiago salduko zenik.

— **Non izan da, zure ustez, arrakasta horren gakoa?**

— Ni idaztera bultzatu ninduen arrazoi bera: hemengo berri izan gura dut, baina ez oso testu serioen bidez, baizik eta entretenimendu gisa. Gainera, norbaitek nire nobela irakurri badu eta gaiak interesa piztu badio, harago joango da; horregatik, nire idazlan guztien bukaeran bibliografia atxikitzen dut. Hori da nire helburua: jendea nobela baino pauso bat harago joatea eta bere inguruko historian miatzea. Adibidez, badakigu ganboarren eta oñaztarren borrokak izan zirela, baina hori Euskal Herriko gune askotan izan zen, eta norberak bere eskualdean izandako guduetan iker dezake.

« Idazten hasi aurretik irakurleengan pentsatu izan banu, bestelako liburuak egin izango nituzkeen »

# Udako Gazte Ikastaroak

(15 urtetik gorakoei zuzenduak)

Izen emateak: Gazte Bulegoan (943 77 00 65)

## Argazkigintza oporraldiei begira

Irakaslea: Jon Ruiz de Zarate

Ekainak 30 - uztailak 28 (15 ordu)

Larunbat goizetan, 10:30etatik 13:30etara

Matrikula: 5.000 pezeta

2.500 ikasle eta langabetuentzat

## Irrati tailerra

Irakaslea: Haika Aizpurua

Esataritza eta lokuzioa

Arrasate Irratian

Uztailak 2 - 27, astelehen eta  
asteazkenetan

arratsaldeko 7etatik 9etara

Matrikula: 4.000 pezeta

2.000 ikasle eta langabetuentzat



## Arkeologi tailerra

Arkeolan ikerkuntza

zentruaren eskutik

Uztailaren 9tik 20ra,

astelehenetik ostiralera

goizeko 10etatik ordu 2etara

Matrikula: 5.000 pezeta / 2.500

ikasle eta langabetuentzat



## Gaur egungo dantza

Irakaslea: Saioa Ibañez

Musakolako kiroldegian

Uztailak 2-13, astelehenetik ostiralera

2 txanda: goizean: 11 - 12:30

arratsaldean: 5 - 18:30

Matrikula: 5.000 pezeta

2.500 ikasle eta langabetuentzat






## Derbiaren ostean futbola hizpide Igor Arenazarekin

**Igo Autobusera** Astelehenean, 10:15ean

Domekan Realaren eta Athelicen arteko derbia jokatu da, eta partidu hori oso garrantzitsua izango da, eta ez bakarrik derbia delako; kontuan hartu beharrekoa da ligako azken jardunaldietan gaudela. Hori dela eta, astelehenean, 10:15etik aurrera, futbolaren gaineko tertulia izango dugu hiru gonbidaturekin: Igor Arenaza futbol jokalaria, Bittor Arriaran Bonba Taldeko kidea eta Jose Ramon Ezkurra Mondra taldeko presidentea hain justu ere. Joan den astelehenean ere futbolaren gaineko mahai ingurua eskaini zuen Arrasate Irratiak. Gatz eta piper askoko tertulia izan zen ordukoa, eta astelehenekoa ere horrelakoa izango da.



## "Portu"ren omenezko kontzertua

Datorren egubakoitz gauean kontzertua emango dute Monterronen Ezkizofrenia Rock, Anti-Regimen, Odio, Heriotza, Ume Gaiztuak, MCD, Puñetazo eta RIP talde-

ek. Hori aprobetxatuz, hilaren 15ean taula gainean izango diren batzuei elkarrizketa egingo diegu. Egubakoitzean, 10:15ean.



### ASTELEHENA - OSTIRALA

- 09:00 Egunon Arrasate eta prentsaren errepasoa.
- 09:55 Eguneko hitzorduak.
- 10:00 Igo autobusera I.
- 11:00 Albistegia.
- 11:15 Igo autobusera II.
- 12:30 Agenda, eskelak...
- 12:45 Albistegi nagusia.
- 14:00-18:00 Errepika.

### ASTELEHENEAN

- 20:00 Jokoz Kanpo.
- 21:00 Draxtor.
- 22:00 In Session.

### MARTITZENEAN

- 20:00 Hi bizi hadi.
- 21:00 Jakidiplost.

### EGUAZTENEAN

- 20:00 Binilo ordua.
- 21:00 KK2A.

### EGUENEAN

- 20:00 Ostegun-Ero.
- 21:00 Arakutzen.

### EGUBAKOITZEAN

- 20:00 Planing Prest.
- 21:00 Kale Doinuak.

### ZAPATUAN

- 10:00 Bihurrikerietan.
- 11:00 Musika klasikoa.
- 12:00 Bi zoro ta zu.

### Sariak

Oraingo astean udarako aproposak diren elastikoak ditugu zuendako: Euskal Selektzioaren elastikoak hain justu. Jantzi gura badituzu, degin 943 71 17 31 telefono zenbakira.

Izen-deiturak: .....  
Tel.: .....

Bidali gurera: Arrasate Press, Otalora 31 edo deitu Arrasate Irratia: 943 71 17 31.

### kontzertuak

BERGARAKO JAM ETA GO-JAMEKO KONTZERTUETARAKO SARRERAK.

Ekainak 19: Queens of the stone age (2 sarrera)

Egun hauetarako **SARRERAK** zozketatuko ditugu. Azken eguna: datorren egubakoitza. Zozketa Arrasate Irratian egingo da.

Izen-deiturak: .....  
Tel.: .....  
Zein Kontzertu? .....

Bidali gurera: Arrasate Press, Otalora 31 edo deitu Arrasate Irratia: 943 71 17 31.



Zoruak • Lijatu eta barnizatuak • Erradapiak • Leihoak • Ateak • PVCko leihoak • Aluminioko leihoak • Eskailerak • Armairu enpotratuak...

### GREMIOEN KOORDINAZIOA

Erakusketa eta biltegia:  
Kale Txiki, 3 - behea • ARRASATE  
Tel.: 943 77 11 20 • Faxa: 943 77 11 20

### ZENTRO PSIKOPEDAGOGIKOA

- Diagnostia-Orientazioa.
- Laguntza terapia.
- Mota guztietako eskola arazoak.
- Peritaje judizialak.
- Psikomotritizatea eta logopedia.
- Tratu fisiko edo psikiko txarrak jasaten dituzten pertsonen laguntza psikologikoa.
- Ikasketa teknika eta ohiturak.

Ignazio Zuloaga kalea, 10 • Tel: 943 79 48 77 • ARRASATE



**D**onostian aterata dago oraingo asteko argazki zaharra, baina gure protagonistak Afrikarako bidea hartzekotan ziren, han soldadutzaz egiteko. Eta trena hartu

bitartean hiriburuan eman zuten denboran honako argazkia ateratzeko aprobetxatu zuten, zerbitzari moduan lanean ari ziren neska mondragotar batzuekin. 1920. urteaz.

Goitik hasita, ezkerretik

eskumara, hauek dira gure lagunak: Jose Ramon "Sara", Zubialdea "Torres", Lorenzo Balanzategi, Aurora Herrera, Urrutia, ezezaguna eta Ugarte. Eta eserita daudenak hauek dira, ezkerretik hasita: lehenengo laurak ezezagunak

dira eta azkena, berriz, Segundo Azkoaga.

-----  
*Argazkia eta berriemailea:*  
 Mari Tere Azkoaga.



## Parques y Jardines

**Parke eta lorategien sorkuntza.**  
**Lorazaintzako mantenimendua orohar.**  
**Landare-birsorkuntza hidroereintzaz.**



Casa-Torre kalea. Tfnoa: (94) 681 90 82 ABADIÑO (Bizkaia)

Gosaldu

Bazkaldu

Afaldu



**Giro onenean!**



**iKER**

**SUKALDE ETA BAINU ALTZARIAK**

**FAGOR** 

**SUKALDE ERAKUSKETA** Udala Plaza, z/g • Tel.: 943 79 00 43 • **BAINU ERAKUSKETA** Zarugalde, 52 • Tel.: 943 79 99 42

UNITED COLORS  
OF BENETTON.



Maalako Errabala, 13 • ARRASATE